

29 urte leloa mantenduz: **ESKOLATXIKIAK BIZIRIK, HERRI ETA AUZO TXIKIAK BIZIRIK.**

1994. urtean ospatu zen hemen, eskola txikien festa eta 22 urte ondoren berriro ospatuko dugu.

Aurtengo festarako logoa egiterakoan, elkarlana islatuko zuen zerbait egin nahi genuen eta sinbolikoki bada ere,



aurreko eta oraingo belaunaldiak batu nahi izan ditugu, familia eta eskolaren lotura azpimarratzeko saikera batean.

Eskola Txikiak bizirik iraunarazteko beste taupada bat gehiago da festa egun hau, baina egunero lanean diharduten irakasle, ikasle, guraso eta herrien lankidetzak da urte hauetan zehar herri eta eskola txikiei bizitza eman diena eta aurrerantzean ere emango diena.

Betiko aldarria beste behin ere azpimarratzea besterik ez da: "Herri, eskola eta auzo txikiak bizirik!"

Azken finean, herriaren parte-hartzeari esker antolatzen da egun hau, eta herria osatzen dugun guztion ahalegin handi bezain txikitik dator.

EKAINAREN 12AN

Aurtengo festa xumea eta haurrengan zentratua izango da.

10:30etan emango diogu hasiera aurkezpen ekitaldiarekin plazan.

Ondorengo tarte 4 gune nagusitan banatu dugu, gune bakoitzak kolore batez izendatuko da. Ikasleak taldekatuko ditugu errotatuz denetatik igaro daitezen:

Bi gune herriko kiroldegian izango dira (barruan eta kanpoan), zirkoa eta munduko jolasak.

Beste biak berriz, herriko udaletxe inguruan, eskulanak eta osasuna-baserria

Ordu bata eta erdietatik aurrera bazkaria.

Hiruretan ipuin kontalaria izango da eta ondoren joku librearen elizako atarian.

Arratsaldean, Gorriti eta bere animaliak etorriko zaizkigu eta festak **apar festarekin** jarraituko du.

<http://eskolatxikiak.eus/eskola-txikien-festa-aurkeztu-da-ikaztegietan/>